



09


mesanotxean

opurua:
Imanol Etxeja:
SEKULI
Leire, Gorka eta Iñaki

"Mesanotxean" izenburupean Gipuzkoako Foru Aldundiak kaleratzen duen e-GAZTEMIRA buletin elektronikoaren monografikoen bilduma da. Bertan Gipuzkoako haur eta gazteria politikekin zerikusia duen gairen bat jorratzen da hiru hilabeteen behin.

Eginkizun horretarako, "Gazte faktoria berritzegunea" izeneko enpresaren laguntza teknikoa dugu "Mesanotxean" bildumaren edukiak prestatzeko orduan, GFAko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuaren zuzendaritzapean.

Herritartasun aktiboa eraikitzen!
Haur eta gazteria politikeen monografikoa **2010eko udazkena**



mesanotxean

Izenburua: Herritartasun aktiboa eraikitzen

Egileak:

Mesanotxean Laborategia: Isabel Babace, Edorta Bergua, Josean Castaño, Nagore García, Urko Imaz, Arantza Martiarena, Nagore Narbaiza, Onditz Leizaola, Maria Solana, Maite Telleria, Xabier Ximenez eta Teresa Zinkunegi

Gazte Faktoria: Joxe Jimenez

Bilduma: Mesanotxean. Haur eta Gazteria politikeen monografikoa

Bildumaren kordinazioa: Edorta Bergua eta Joxe Jimenez

Diseinua eta maketazioa: Gazte Faktoria Berritzegunea eta IPAR Komunikazio Grafikoa

Hizkuntz aholkularitza: Maramara Taldea

© Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia. Gizarte Politikako Departamentua
Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaraldia: 2010eko Udazkena

Aurkibidea

Oinarrizko dokumentua:

Herritartasun aktiboa eta parte-hartzailea,
nola landu?

orrialde 6/21

Proposamenen dokumentua:

irizpideak eta ekintza ildoak

orrialde 22/29

Tresnak

gaiari buruz gehiago jakiteko...

orrialde 30/32

Hitzaurrea

Ikasturte honen hasieran, Gaztematika Foro Teknikoan, Mesanotxean laborategia izenez bataiatu duguna bultzatzea erabaki genuen. Tokiko eta Lurraldeko gazte teknikariz osaturiko lantaldea, Gazte Faktoria erakundeko teknikariek dinamizatzen dutena. Haurrei eta gazteriari buruzko politikak biltzen dituzten Mesanotxean monografikoak sortzeko eta ekoizteko prozesuan lankidetzan aritzea da bere egiteko nagusia.

Talde honek, lehen urrats gisa, laborategiaren lehenengo saioa egin zuen, Mesanotxean jorratu beharreko gai interesgarriak zehazteko eta 2010/11 ikasturtean garatu beharreko lau gaiak erabakitzeko. Saio horretan hiru hilabetez behin gai bat jorratzea erabaki zen: udazkenean, herritartasun aktiboaren sustapena; neguan, Gaztematikak duen lekua Gazteriaren Euskal Legearen proposamenaren aurrean; udaberrian, Gaztematikarentzako komunikazio metodoak eta tresnak; udan, bai aurrez aurre bai esparru birtualean elkartzeko modu berriak.

Bigarren laborategian erabaki genuen arreta jartzea gogoetan eta «herritartasun aktiboaren sustapenari» buruzko eztabaida kolektiboan. Gazte Faktoriak egindako oinarritzko dokumentu batetik abiatuta, taldeak ondorio eta proposamen batzuk zehaztu zituen, Gaztematikan herritartasun aktiboaren sustapena ezartzen laguntzeko xedearekin.

Ondoren, Gazte Faktoriako teknikariek dokumentua osatu dute aurkeztutako irizpideekin eta markatutako ekintza-ildoekin. Mesanotxean zirriborroa taldeko partaideei bidaliko zaie; oniritzia eman ostean, argitaratzeko prest egongo dira. Prozesu honen guztiaren emaitza une honetan irakurtzen ari zarena da: *Mesanotxean – haurrei eta gazteriari buruzko politiken monografikoaren bederatzigarren zenbakia*.

Oinarrizko dokumentua:

**Herritartasun aktiboa eta parte-hartzailea,
nola landu?**

Monografiko honetan, hiru helbururi buruz egingo dugu gogoeta: lehenik, herritartasun politiken ikuspegi berria aurkitu beharra; bigarrenik, herritartasun aktiboaren kontzeptu esparrua Gaztematikan nola errotu; hirugarrenik, iradokizun praktikoak egitea tokian tokiko haur eta gazteei buruzko politiken alorrean ezartzeko.

Egin nahi genukeen ibilbideak haur eta gazteentzako zerbitzuen eta herritartasun aktiboaren arteko harremanari buruzko ikuspegi historikoa du abiapuntu. Hortik, haurrek, nerabeek eta gazteek herritartasuna osorik gauzatzea sustatu eta erraztuko duten helburuak zehaztu beharko dira. Ondoren, pertsonen, aukera berdintasunean, autonomia pertsonal eta kolektibo mailak eskuratzen laguntzen dieten balioei buruzko gogoetari heldu beharko zaio. Behin hori eginda, helmugara iristeko bitarteko eraginkorrenak (parte hartzea, heziketa...) aukeratu beharko ditugu. Azkenik, programazio ildo eta irizpide zehatzak eta lan egiteko jarraibideak planteatuko ditugu haur, nerabe eta gazteentzako zerbitzuetan herritartasun aktiboa bultzatzeko.

1. Sustapen zerbitzuen eta herritartasun aktiboaren arteko harremanaren jatorriari buruzko begirada historikoa

Haur eta gazteria politiken eta herritartasun aktiboaren arteko harremanen jatorria bilatu behar izanez gero, hezkuntza ez formala izango litzateke bien arteko lotura. Hezkuntza-praktika horiek modu aurrendarian jasotzen dituzte herritartasun aktiboaren sustapenaren asmoa eta praxia. Hain zuzen ere, hezkuntza ez formala bi egitekorekin sortu zen: pertsonen beren burua eraikitzeke prozesuan laguntzea eta gizartea eraldatzen parte hartzea. Horretarako, herritar kritikoak, arduratsuak eta aktiboak sortzen laguntzen du.

Aisialdi-hezitzaile mugimendua definitzen duten elementuek (egitekoa, oinarri pedagogikoak, balioak, parte hartzeko metodologia –zuzendaritzakoa izan ordez–, haurrak eta nerabeak protagonista bezala onartzea, auto-kudeaketa eta autogobernua antolakuntza-sistema gisa, jarduerak gizarte transformazioaren praxi gisa...) bermatzen dute hezkuntza-prozesu horiek direla herritarrak sortzeko eskolak, bai lehen, bai gaur egun. Nolanahi ere, haurrak eta gazteak sustatzeko eragile zuzenentzako (teknikariak, hezitzaileak) argi dauden kontu horiek, gehienek ustez (parte-hartzaileak, erakunde publiko eta pribatuak eta gizartea oro har) nahiko zaila da balio erantsi hori onartuta ikustea.

Zaila da egoera horretara eraman gaituzten arrazoi zehatzak zein diren adieraztea baina, sarrera moduan, CJEk argitaratutako eta Pau Vidal¹ek koordinatutako ikerketan ateratako hainbat auzi landuko ditugu: «gazteen elkartze mugimendua: herritartasun eskolak».

- Gazte elkarte batean parte hartzen duten edo parte hartu duten gazteak askotan ez dira kontziente (zertaz?) eta, ondorioz, ez dakite behar bezala transmititzen gune horietan ikasitakoa.
- Gazte elkarteek trebakuntza koordinatzeko eta sistematizatzeko prozesuak ezartzeko erronka dute oraindik aurrez aurre.
- Gazteak garatzeko prozesuetan parte-hartzeak zer nolako inpaktua duen neurtzeko erreminta egokirik ez dute ez sektore publikoak, ez pribatuak.

Haur zein gazteak sustatzeko prozesuetan eskuratutako jakintza edota gizartearen balioak ez transmititzeak ezin gaitu geldirik utzi; aitzitik, pizgarria behar du izan, zer egiten eta lortzen ari garen jakiteko.

Lehenik eta behin, monografiko honen bidez herritartasun aktiboaren kontzeptua (berriro) definituko nahi genuke. Kontzeptu hori Gaztematikan aplikatuko dugu haurrentzako, nerabeentzako eta gazteentzako gertutasun zerbitzuetan.

2. Herritartasun aktibo kontzeptuaren aurkezpena

Herritartasunaren egungo ikuskerak:

Gure asmoa ez da herritartasunaren kontzeptuan gehiegi sakontzea. Hala ere, kontzeptua ulertuko badugu, gure inguruan ditugun herritartasun motak girotzen saiatu behar dugu.

Ricard Zapata-Barreroren arabera, herritartasunaren ikuskera modernoak² hiru tradizio historiko konbinatzen ditu. Bere argudioak ikuskera zehatza definitzeko eta politika publikoak legitimatzeko erabili ohi dira: tradizio liberala, tradizio komunitarista eta tradizio errepublikanoa.

Eskematikoki, hiru tradizioak oinarritzko sei dimentsio jarraituz deskriba daitezke: oinarritzko euskarria, edukia, definizioa, dimentsioak, premisa eta herritartasunaren arrazoizko gaitasuna.

	Liberalismoa	Komunitarismoa	Errepublikanismoa
Oinarrizko euskarria	Estatua	Nazionalitatea	Alor publikoa
Edukia	Eskubideak	Nortasun politikoa	Betebeharrak (gizabidea)
Definizioa	Maila eta estatusa	Komunitateko kide izate sentimendua	Ekintza, praktika, autonomia eta erantzukizuna
Dimentsioak	Dimentsio pasiboa	Dimentsio pasiboa	Dimentsio aktiboa
Premisa	Herritar jaiotzen gara	Herritar jaiotzen gara	Herritar egiten gara
Edukiera	Erabilera instrumentala	Arrazoitzeko gaitasunaren erabilera finalista. Nortasunarekin zerikusia duten helburuak (tradizio komunitarista)	Arrazoitzeko gaitasunaren erabilera finalista. Bizitza sozialaren garapenarekin zerikusia duten helburuak (tradizio errepublikanoa)

Norbere identifikazio pertsonalarekiko existitzen den aniztasuna errespetatuz, dokumentu honetan, tradizio errepublikanoaren ideiatik abiatuko gara (herritar ez da jaiotzen, herritar egin egiten da), ikerketa bideratzeko.

Elementu horrek garatu beharreko ikuspegi interesgarria ematen digu, herritartasunaren hezkuntza-karakterizazioa dela-eta. Tradizio errepublikanoan, gutxienez, oinarrizko hiru dimentsio nabarmendu nahi ditugu:

- 1) Borondateari ematen dion garrantzia, herritartasunaren definizio aktiboan: «autonomia pertsonala asetzeko jokabidea eta jarrera».
- 2) Herritar onaren ideia-aren inguruko arrazoiketa: *aldaketa prozesuetan inplikaturako herritartasun autonomoa eta aktiboa*.
- 3) Erakunde publikoen gizarte lan pedagogikoari ematen dion garrantzia, gizartearen aurrean dituen pertzepzioak eta jarrerak moldatzen dituen aldetik.

Aukera hau aprobetxatu nahi dugu, B. Roudetek³ bere liburuan proposaturako herritartasunaren kontzeptualizazioa azaltzeko: Bere ustez, bi herritartasun mota nagusi daude, gazteei dagokienez:

* Emandako herritartasuna: lurraldeari, nazionalitateari zuzenean lotutako herritartasuna da. Gizarteak pertsona helduei automatikoki emandako estatusa da, eta eskubideen eta betebeharren kontuarekin dago zuzenean lotuta. Gaur egun, eskuarki, haurra, nerabea eta gaztea izatea heldutasunera bidean egotea dela kontsideratzen da; hau da, herritar izateko bidean egotea. Hala, gizarteak ez ditu herritartzat hartzen 0 eta 18 urte arteko pertsonak eta, ondorioz, ez daude guztiz onartuta eragile sektorial gisa.

* Irabazitako herritartasuna: tokiko dimentsioari lotuta dago hurbilketa hori. Ez da hasieratik emandako estatusa; tokiko gizarteak tokiko eragile gisa onartzeko lortu beharreko zerbait da. Eta onarpen hori tokiko dimentsioari zerbait ekarriz gero gertatzen da, lagunduz gero, alegia. Alde horretatik, gazteen parte-hartze modu berriak ikusten ditugu; hala nola, mugimenduen sorkuntza, GKEak, kultura-adierazpenak, komunikazio guneak...

Herritartasunaren inguruan proposatutako bi planteamenduek premisa berera eramaten gaituzte: herritartasun modernoaren oinarritzko hastapenetako bat gizartean rol aktiboa izatea dela, batetik, bakoitzak bere herritartasuna eraikitzeko eta, bestetik, guztion artean herritartasun kolektiboa sortzeko.

Ricard Zapata-Barrerok egindako irakurketa modernoa moldatuz gero, herritartasun aktiboa sustatzen duten elementuak hiru dira, gutxienez: «lehenik eta behin, autonomia, pertsona-gaitasunak garatu ahal izateko (herritar ona «egin/izan nahi duena egiten duena/dena da»); bigarrenik, dimentsio aktiboa; horrek ez ditu gizabidezko jarrera eta gizartearekiko konpromisoaren zentzua soilik barne hartzen, errealitatearen espiritu kritikoa ere hartzen du; eta, azkenik, aldaketa-prozesuetan inplikatzeko gaitasuna eta, ondorioz, gizartearen galderak partekatzeko prest egoteko, balio kontserbatzaileen bidez aurka erreakzionatu gabe... batez ere, aniztasunaren dinamikek eguneroko ingurunearen eta banakako jardueraren zein jarduera sozialaren ohiko esparruen aldaketa eragiten dutenean».

Orain arte, herritartasun aktiboagoaren beharra garatzeko beharra azaldu dugu. Nolanahi ere, Jorge Benedicto eta Maria Luz Moran egileek euren «*La construcción de una ciudadanía activa entre los jóvenes*»⁴ liburuan proposatzen duten galderari erantzun beharko genioke.

Posible al da gazteen herritartasun aktiboa?

Haurrengan, nerabeengan eta gazteengan eraikuntza aktiboa eta parte-hartzailea sustatu nahi badugu, helduengan baino are beharrezkoagoa da zenbait kontraesan eta zailtasun gainditzea. Gazteek modu aktiboan inplikatzeko izan ditzaketen zailtasunak hobeto ulertzeko, egile horiek deskribatutako lau ezaugarri erabiliko ditugu:

- «Gazteen gehiengoak gero eta interes gutxiago dute erakundeekin lotutako guztiarekin; erakundeek euren interes espezifikoekin konexio falta baitute, besteak beste».
- «Agerikoa da gizabidezko parte-hartzearen esanahiak aldatu egin direla. Egungo gazte askorentzat, herritar komunitatearen kide izatearen adierazpen argiena eta eraginkorrena gizarte solidaritatearen esparrura aldatu da (Alexander 1997)⁵.»
- «Heldua izatea esan nahi duenari buruzko eredu estandarizatuek, familiarekiko mendetasun aldiaren luzapenak eta euren trantsizioak betetzeko aurkitzen dituzten zailtasunek zalantza eta nahasketa dosi handiak sartu dituzte gazte taldeetan; izan ere, euren ia-herritartasun egoera kontsolidatzen dela ikusten dute, baina herritar oso bihurtzeko aukerarik gabe (Benedicto eta Morán 2001)⁶.»

- «Gaur egun gazteek gizartean baztertuta bizi izateko gero eta arrisku handiagoa dute. Arriskurik handiena gizarte bazterkeria da, eta gizarte profil berriak hartu ditu. Orain, eragin handiena jasaten duten taldeak gizarte ordenaren barnean maila ahulenetan daude; hortaz, gazteak, gutxiengo etnikoak eta, kasu askotan, emakumezkoak dira, bereziki, baztertze egoera horiek jasaten dituztenak. Gizarte marjinaziozko arazo larriak sortzeaz gain, baztertze hori oztopo ia zeharkaezina da herritar izatera iristeko, gainontzeko populazioaren eskubide berak aitortuta badituzte ere. Egoera horietan baita nabarmenagoa, hain zuzen ere, zerbaiten eskubidea aitortuta izatearen eta hori eskuratu ahal izatearen arteko distantzia (Jones eta Wallace 1992)⁷.»

Egoera konplexu eta kontraesankor horrek haurrak, nerabeak eta gazteak desorientatzen laguntzen du, komunitatearekiko dituzten erantzukizunei, duten lekuari eta gizarte zein politika-prozesuen garapenean bete behar duten rolari dagokienez. Gure ustez, horrek guztiak helburu argiak zehazteko beharra sendotu besterik ez du egiten, haurtzaroaren eta gaztaroaren sustapen politika herritartasun aktiborako ikasketa-tresna bihurtu nahi badugu.

3. Herritartasun aktiboa sustatzeko helburuak

- * **Nortasun pertsonalaren garapena eta gizartean toki aktiboa izateko gaitasuna bermatzea.** Gazte bakoitzak bere nortasun pertsonala eta gizartean toki aktiboa izateko gaitasuna garatzeko aukera izan behar du. Horrek euren egungo egoerarekiko eta etorkizunarekiko autonomia eta erantzukizuna eskuratzea hartzen du barne.
- * **Haurrengan, nerabeengan eta gazteengan eskumenak garatzea, autonomia pertsonalaren eta kolektiboaren kotak lortzeko, aukera berberekin.** Haurrei, nerabeei eta gazteei euren komunitatearen bitzta sozialean, politikoan eta ekonomikoan erabat sartzeko aukerak handituko dizkieten ahalik eta banakako eskumen gehienak ematea. Gizarte solidarioa gazte bakoitzari osotasuna lortzeko eta autonomia izatera iristeko aukera bera eskaintzeaz arduratzen da. Horietako zenbait eskumen: arrazoizko jakin-mina, komunikazio enpatikoa, zentzu kritikoa, analisi gaitasuna, zintzotasuna, errespetua, tolerantzia, afektibitatea eta elkartasuna.
- * **Partaidetza kolektiboko sentimendua garatzea.** Gazteei bitzta kolektiboaren sektore guztietan atea irekitzeko konpromiso sendoari esker, gazteek dagozkien esparruen eta gizarte osoaren bilakaeran parte hartzeko aukera izango dute; hori funtsezko baldintza da partaidetza kolektiboaren sentimendua garatzeko. Zenbait baldintzak aipatutako partaidetzaren garapena sustatzen dute. Gazteek beren inguruan tokia aurkitu behar dute, entzun egin behar zaie, proiektuak garatzeko eta inplikatzeko aukerak izan behar dituzte.

- * **Gazteei euren aniztasunean laguntzea, euren bizitza esparruan garatzen duten gizarte parte-hartze formak onartzea.** Beharrezkoa da gizartea gazteen aniztasunera eta euren helburuetara irekitzea. Mundura gero eta irekiagoa dagoen gizartean, gazteek ere euren nortasun kolektiboa sendotzeko, balore sozialak partekatze eta horren proiektioan laguntzeko aukera topatu behar dute. Gazteak gizarte mugimendu berriak, GKEak eta elkarte forma berriak elikatzen dituzten pertsonen zati garrantzitsua dira.
- * **Tokiko/lurraldeko parte-hartzea duintzea.** Bizitza publikoan, hainbat lurralde mailatan instalatutako aukera kolektiboak eztabaidatzeko eta prestatzeko guneak onartu behar dira, parte-hartzea duinagoa izan dadin bermatzeko. Tokian bertan, auzoetan edo komunitateetan, parte-hartzea esperimintatzeak demokraziaren eraikuntzan ere lagun dezake. Bestela esanda, ez litzateke alde batera utzi behar gazteek inguratzen dituzten espazioekiko sentitzen duten identifikazio handia. Europako gazteen ia erdiaren arabera, nortasuna gizarte eremu hurbilenean sortzen da; hau da, hirian bertan. Eguneroko bizitza gizarte harremanetan egituratzen duen espazioetara konektatzen dira (Belot, 2005).
- * **Tokiko eremua erakundeen elkarriketarako eremu pribilegiatu gisa hautatzea.** Ondorioz, tokiko maila eremu garrantzitsuena bihurtzen da, gizarte zibilaren antolakuntzari eta adierazpenari dagokionez; hori ezinbestekoa da parte-hartze erabakiak hartzeko eremuak praktikan jartzeko (Loncle, 2008).
- * **Eremu publikoarekiko kezka sorraraztea herritarrei.** Gatazka pertsonalen eta kolektiboen konponbidean parte hartzeko interesa duten pertsonak. Pertsona inplikatuak eta bizi diren lurraldearen norabidearen arduradun.
- * **Gaztematikan baldintzak eta aukerak sortzea zein mantentzea, hartzaile nagusiek eragiten dizkieten politiketan eta jardueretan benetako eragina izan ahal izateko.** Honela garatu behar da:
 - Modu formal eta antolatuan, edota modu informal eta naturalean.
 - Zuzenean eta pertsonalki haurren, nerabeen eta gazteen aldetik, edota zeharka, errazten eta ordezkatzeko bitarteko erakundeen edo instantzien bitartez.
 - Nola haurrentzako, nerabeentzako edo gazteentzako prozesu eta gune espezifikotan, hala ardura politikoa duten pertsonak, profesionalak eta antzeko hizketakideekin partekatzen dituzten prozesu eta gune mistoetan.
 - Maila guztietan: parte hartzen den jardueratik, Gipuzkoako Haur eta Gazte Sustapenerako Sistema osoraino.
 - Maila guztietan: operatiboa, kudeaketakoa, gobernukoa.
 - Prozesuen etapa guztietan: diseinua, gauzapena, ebaluazioa.
 - Beti modu errealistan, sortzailean, berritzailean, progresiboan, hezitzailean, malguan eta haurren, nerabeen eta gazteen beharrei, gaitasunei, eskariei eta helburuei moldatuta.

4. Herritartasun aktiboa eraikitzeke metodoak

Azalpenean aurretik esan bezala, herritartasun aktiboa eraikitzeke, bi ikasketa-tresna erabil ditzakegu: herritarren parte-hartze aktiboa eta herritartasun aktiborako hezkuntza. Orain, labur aurkeztuko dugu parte-hartzearen garrantzia, Rogert Hartek prozesu edo zerbitzu bateko parte-hartze maila zehazteke sortutako neurri eskala, "Haur, Nerabe eta Gazteei zuzendutako udal zerbitzuak modu parte-hartzaile batean diseinatzeko gida" eta "Parte hartzearen sustapena" dokumentua.

4.1. Parte-hartze aktiboa:

- * «Mendebaldeko demokrazietan, interes kolektiboak ikusteko eta gobernatzen duten pertsonengan eragina izateke gaitasuna duten norbanako independenteek osatzen dute herritartasuna. Parte-hartzeak eremu pribatuaren eta politika zein estatu eremuen arteko bitartekari den gizarte zibilaren bizitasuna islatzen du. Esparru horretan, parte-hartzea baloretzat eta praktikatzat har daiteke. Guztion onura sustatuko duen eremu publikoaren eraikuntzatik abiatuta, parte-hartzea ere balorea da; gure gizartearen funtsezko balore demokratikoetako bat, hain zuzen ere (B. Roudet, 2008)⁸».
- * «Seguruenik, balore demokratikoak hobeto transmititzen dira gizarte erakunde osoaren bidezko erregulazio demokratikoaren garapenaren bidez eta, gizarte maila guztietan, parte-hartze proiektuak martxan jarrita. Euren eguneroko bizitzan esperimintatzeko aukera izan duten gazteek gehiago sinetsiko dute prozesu demokratikoen eraginkortasunean (Bréchon, 2001)⁹».
- * «Jarrera politikoetan edo ideologikoetan baino, euren gizarte nortasuna garapen pertsonalerako eredu bilaketaren arabera eraikitzen da: esperientzien aniztasunean oinarritutako garapen pertsonal anitzaren eta zatikatuaren bidez egindako aukera pertsonalen kontua da, batez ere. Gaur egun, euren baloreen eta konpromisoen bidez, gazteek eremu publikoko parte-hartze forma berrien lekuko dira: gazte parte-hartze eta adierazpen forma sozialak eta politikoak berreraikitzen ari dira, baina ez erakundeek ezarritakoaren bidez, baizik eta banakako baldintzen bidez (Becquet eta deLinares, 2005)¹⁰».

4.2. R. Harten metafora deskubritzen¹¹

Parte-hartze aktiboaren kontzeptura hurbiltzeko Roger Hart egileak sortutako metaforaz baliatuko gara: "Parte-hartzearen eskailera" deitzen dio egileak. Metaforaren bitartez, hainbat parte-hartze maila daudela erakusten digu egileak. Teorialari horren arabera, zenbat eta maila altuagoa izan eskaileran, orduan parte-hartze maila altuagoa izango du. Eskaileraren metaforak zortzi maila ditu, orain ikusiko dugunez. Eredu teoriko

horren bitartez, parte-hartze sinbolikotik hasi (parte-hartze ere esan ezin zaion horretatik hasi) eta benetako parte-hartzerainoko (zortzigarren maila) mailak adierazten ditu Hartek.

Roger Harten eskaileran parte-hartzeko modukotzat hartzen ez diren mailak

Hartek dio eskaileraren hiru maila apalenetakoa ez dela benetako parte-hartzea, itxurazko parte-hartzea baizik. Gainera, gehienetan parte-hartzeari buruz hitz egiten den arren, ez da kontuan hartzen jardueraren xede den kolektiboaren parte-hartzea.

Manipulazioa: Eskaileraren lehenengo maila da. Maila horretan, parte-hartzaileei ez zaie ezer galdetzen eta ez zaie informaziorik ematen gauzatu beharreko ekintzari buruz. Subjektuak edo taldeak parte hartzen du, baina zergatik jakin gabe. Parte hartzen duten pertsonak ez dakite ia ezer parte hartzen ari diren gaiari buruz eta, ondorioz, ez dituzte oso ondo ulertzen euren ekintzak ere.

Dekorazioa: Bigarren maila horretan, erakusleihu gisa bakarrik parte hartzen dute pertsonak. Ez zaie iritzirik eskatu eta, ondorioz, ez da gaiari buruz duten iritzia ere entzun. Pertsonak propagandarako bitarteko edo apaindura soil gisa erabiltzen dira. Eskailerako maila horretan, pertsonak ikusle edo egile gisa soilik parte hartzen dute prozesuetan. Subjektuek ez dute parte hartu ez jarduera prestatzen eta ez jardueraren edukiari edo garapenari buruzko erabakiak hartzen. Aginduak betetzera edo estimuluei erantzutera mugatzen da parte-hartzailea.

Bi maila horien artean honako alde hau planteatzen du Hartek: manipulazio mailan, parte-hartzaileen kolektiboak kausa iradoki duela sinestarazi nahi da, eta dekorazio mailan, aldiz, ez.

Simbolismoa: Hartek *parte-hartze sinbolikoa* deitzen dio hirugarren mailari. Parte-hartzaileek adierazpenak egiteko aukera dute, baina euren iritziek ez dute inolako eraginik izango. Kolektibo batek modu sinbolikoan parte hartzen du, berari dagozkion gaiari buruzko iritzia emanez, baina iritzi horiek ez dute benetako ondorioz eta ez dira hartzen ustez ordezkatzeko dituzten taldeen erakusgarritzat ere.

Roger Harten eskailerako parte-hartze mailak

Parte-hartzearen garrantzian sinesten badugu, kontuan izan behar dugu Hartek deskribatutako lehenengo hiru maila horiek ez direla benetako parte-hartzeak eta, ondorioz, pertsonekin lan egiten duten eta parte-hartzearen garrantzian sinesten duten erakundeek ez dituztela erreferentzia gisa hartu behar.

Hartek proposatzen dituen ondorengo mailetan benetako parte-hartzea bideratzen dela esan daiteke. Egilearen arabera, parte-hartzea egon dadin, lau baldintza bete behar dira, gutxienez:

- parte-hartzaileek proiektuaren helburuak ulertzea
- euren parte-hartzeari buruzko erabakiak nor hartu dituen eta erabaki horien arrazoiak zeintzuk diren jakitea
- zeregin adierazgarria izatea, eta ez itxurazkoa
- aurreko guztia jakinda, euren borondatez esku hartzea.


Esleipen bidezko hautaketa, baina informazioa emanaz (1. maila):

Hartek planteatzen duen laugarren maila da hau, eta *esleitutako baina informatutako parte-hartzaileak* ditu protagonista. Parte-hartzaileek ez dute esku hartu proiektuaren planifikazioan edo beraiengandik espero den zereginaren esleipenean, baina euren borondatez ari dira parte hartzen eta oso ondo ezagutzen dute proposatu zaien ekintzaren zentzua. Beste modu batean esanda, parte-hartzaileek ulertzen dute proiektu edo ekintzaren esanahia eta, aurretiko erabakietan parte hartu ez badute ere, ados daude eta euren borondatez parte hartu nahi dute. *Honako hau izan daiteke parte-hartze maila horren eredu bat: herriko jaietan, gazte zinegotzigoak kontzertua antolatzen du; eta sustatzailea udala bada ere, herriko koadrilen borondatezko laguntza du.*

Kontsulta eta informazioa (2. maila):

Egileak *kontsultatu eta informatu* deitzen diona da bosgarren maila. Hainbat laguni dagokien proiektuak parte-hartzaileak aintzat hartzen dituenean izaten da parte-hartze mota hau. Parte-hartzaileak aintzat hartzen dira beren proposamenak bildu eta proiektuan sartzeko, proiektua arduradun jakin batzuek diseinatu eta kudeatzen badute ere. Pertsona talde batek (arduradunek, adituek...) diseinatu eta zuzentzen du proiektua, baina parte-

hartaileen proposamenak eta iritziak eskatu eta aintzat hartzen ditu; beste modu batean esanda, parte-hartzaileak arduradunen aholkulariak edo kontseilariak dira. *Parte-hartze maila horren eredu honako hau litzateke: herrian, udal arkitektoa gazteleku berria ari da diseinatzen; horren beharrak ezagutzeko, zenbait gazte elkarterekin biltzen da, euren gustuen eta beharren berri emateko. Proiektuaren gaineko azken erabakia arkitektoak izango du.*



Pertsona arduradunek abian jarritakoa, erabakiak parte-hartzaileekin partekatuz (3. maila):

Harten eskalan, alde handia ikusten da maila honetatik aurrera. Harten arabera, eskailerako maila horretan, pertsonak garrantzi handiko parte-hartzea dute erabakiak hartzeko orduan. Parte-hartzearen eskaileran beste urrats bat ematen da, parte-hartzaileak erabakiak hartzeko prozesuan sartzen baitira. Erabakiak arduradunekin partekatzen dira. Proiektuaren metodologian, arduradunak ez direnek ere parte hartu ahal izateko espazioak eraten dira, esaterako, batzarrak eta abar. *Adibideari jarraituz, herriko elkarteen azoka egingo da. Horretarako, udalaren eta elkarteen arteko batzorde mistoa sortuko da. Programa bi aldeen arteko baterako erabakiaren bidez izango da.*

Parte-hartzaileek abian jarri eta zuzendutakoa (4. maila):

Parte-hartzearen eskailerako zazpigarren mailan, prozesua errazten bakarrik esku hartzen dute adituek.

Adibideari jarraituz, gazte talde batek capoeira tailerra egitea erabaki du. Baina zailtasunak dituzte begiralea aurkitzeko, eta hezitzailea arduratuko da pertsonak proposatzeaz, azken erabakia talde antolatzaileak hartuko badu ere.

Parte-hartzaileek abian jarri eta erabakiak arduradunekin partekatzen dituzte (5. maila):

Parte-hartzearen benetako eredia da maila hau. Eskailerako maila gorenean dago eta edozein jardueratarako antolatzen den pertsona taldea ordezkatzeko da. Maila honetan, benetan sinesten da parte-hartzaileen potentzialtasunean. *Adibideari jarraituz, gazte talde batek asteburuko irteera prestatu du Gaztegunean. Gazteek erabakiko dute tokia, iristeko modua, programa, antolakuntza eta finantzaketa.*

Ondorioz, R. Harten eskailera metodoa erabiltzeko aukera aztertzeko proposamena egin nahiko genuke, Gaztematikako haurrentzako, nerabeentzako eta gazteentzako zerbitzu balioaniztunen kudeaketa parte-hartze praktikaren diagnostikoa egiteko.

4.3. “Haur, nerabe eta gazteentzako udal zerbitzuak modu parte-hartzaile bastean diseinatzeko gida”¹²

Dokumentu honen helburua haur, nerabe edo gazte zerbitzuen diseinu parte-hartzaileak garatzeko laguntza tresna izatea da. Diseinuaren ezaugarrietako bat egoera guztietara egokitzeko malgutasuna da, eta horrek hamaika egoera ezberdin kontuan hartzea suposatzen du. Hau jasotzea ezinezkoa denez, oinarritzakoena jasotzen saiatu gara. Beraz, tokian-tokiko moldaketa egitea bakoitzaren esku geratzen den zerbait da.

Lehenik zerbitzuen diseinu parte-hartzailearen aldeko apustua zergatik egiten dugun azaltzen da. Ondoren, prozesu parte-hartzaile bat diseinatu aurretik nahiz garatzen ari den bitartean argi izan beharreko ideiak batu ditugu. Hirugarrenean, eman behar diren urrats nagusienak identifikatu eta hauek gauzatzeko sortu beharreko egituren deskripzio laburra jaso dugu. Amaitzeko, jorratu daitezkeen edukien aipamena egiten da.

4.4. “Parte-hartzearen sustapena”¹³

Dokumentu hau udal gazteria teknikariekin parte-hartzea lantzeko sortua izan da. Parte-hartzearen gaia diskurtsotik praktikotasunera eramateko bidea erraztu nahi du.

Parte-hartzeari dagokionez, orain arte ulertu eta landu dena mugatua dela iruditzen zaigu. Batetik, sarritan, parte-hartzearen kontzeptua ekintza eta zerbitzuen ‘kontsumoarekin’ lotu da, eta horrela ulertzeak benetako partehartzearen sustapena mugatu du. Bestalde, parte-hartzea batez ere elkartegintzarekin lotu da, bestelako mota eta bideak kontenplatu gabe. Azkenik, maiz errepikatzen diren baina errealitatearekin bat ez datozen ideiak izan ditugu hau lantzeko lagungarri ez direnak: administrazioak benetan ez duela interesik parte-hartzea bultzatzeko, gazteek ez dutela interesik parte hartzeko, parte-hartze ohiturak eskolan ikasi behar direla etab.

Dokumentu honen zati interesgarri ezberdinak aurkeztu nahi dizkizuegu:

4.4.1. Parte-hartzearen definizioa

Parte-hartzea zentzu zabal batean, norbanakoek bere ingurua eta harremanak aldatzeko duten gaitasun bezala ulertzen dugu, beraien bizitzarekin zuzenean ala zeharka zerikusia duten baldintzetan eragina izanik, horretarako baldintza hauen inguruan erabakiak hartuz eta beraien garapen pertsonal nahiz kolektiboa ahalbidetuz. Hitz bitan esanda, hiritartasun aktiboa.

Norbanakoa da bere jarreraren erantzule, baina hiritartasunaren kontzepzioak kidesuna beregan hartzen du eta hori dela eta talde mailan egin behar den prozesua da parte-hartzea. Dinamika parte-hartzaileak, norbanakoaren balioak eta jokamoldeak elkarrekin partekatzen garamatza eta bide batez, bizitza publikoko arazoak konpontzeko erabakiak hartzen.

4.4.2. Hartzaileak

Haur, nerabe eta gazteak izango dira parte-hartzearen sustapenaren helburu taldea, norbanako nahiz talde edo kolektibo gisa. Parte-hartzea lantzerako orduan maila eta modu ezberdinetan esku hartuko dugu, parte hartzeko modu bakarra ez baitago. Parte-hartzea puntuala ala egonkorra izan daiteke eta norbanako ala talde edo kolektibo bezala parte hartu daiteke.

4.4.3. Helburuak

Parte-hartzea sustatzerakoan bi helburu nagusi ditugu:

- Haur, nerabe eta gazteek beraien zuzendutako politika eta zerbitzuetako dinamikean parte hartu dezatela.
- Haur, nerabe eta gazteak hiritar aktibo izaten laguntzea, hau da, beraien bizitza sozialean parte hartu dezatela sozialki arduratsuak diren jarrera indibidual eta kolektiboak bereganatuz.

4.4.4. Parte hartzeko bideak

Haur, nerabe eta gazteekin parte-hartzea lantzen dugunean argi izan behar dugu parte-hartzea bera ikaskuntza prozesu bat dela, hau da, *parte hartuz ikasten dela parte hartzen*. Beharrezkoa da beraz haurrak direnetik partehartzea lantzen hastea, gaztarora iristean parte hartzaileak izateko.

Ikaskuntza prozesu hori ahalbidetzeko parte-hartze bide ezberdinak joratu beharko ditugu hartzaileekin, nagusiki hiru eremuetan; haur, nerabe eta gazteentzako zerbitzuetan, udal haur eta gazteria politiketan eta elkartegintzan.

A. Diagnostikoa

Lehen urrats batean beraz udalerrri horretan jadanik dagoenaren berri jaso beharko da, eta barrutik ezagutu zeintzuk izan diren herri horretan egon diren esperientziak, zein elkarte dauden, mugimendurik badagoen ala ez... Hau da, gazteria teknikari edo erreferentea denak udalerrri edo testuinguru horretako elkartegintza eta gazte mugimendu, eta ordu arte udaletik eta herri mailan sustatu diren parte-hartze bide eta esperientzien berri izan beharko du.

B. Udal mailan eta udalerrriari begira egin beharreko lana

Gazteria teknikariaren ardura da (babes eta lidergo politiko batez lagundurik) haur, nerabe eta gazteen parte-hartzea sustatzea herri mailan. Horretarako udalean parte-hartzearen gaia landu beharko da, ez bakarrik bere arduradun politikoarekin, baita beste sailtako arduradun politiko eta teknikariek ere.

Lanketa hau ez da ordea udalera mugatzen, gainontzeko eragileekin burutu beharreko egitekoa da. Azken finean haur, nerabe eta gazteekin harremanetan dauden eragileek prozesu ezberdinetan parte-hartzea bideratu dezakete edo honen sustatzaile izan.

a) Udal mailan

Udal mailan parte-hartzearen inguruan lanketa bat egitea komenigarria da, hasieratik arduradun politiko eta teknikoek gaiarekiko sentsibilizazioa garatu dezaten. Lanketa hori gazteria teknikariaren ardura da. Gaia lantzeaz aparte beste urrats bat ere eman daiteke: udalak parte hartzearekiko duen planteamendu bat landu dezake, bere asmoak hausnartu eta jasoz.

b) Udalerrriari begira

Aurrez azaldu bezala, parte hartzea udal mailan lantzeaz gain, udalerrri mailan (ikastetxe, guraso, elkarte,...) landu behar den gai bat da, haur nerabe eta gazteekin zuzeneko harremana duten eragileak baitira. Haur eta nerabeen heziketaren arduradun diren ikastetxe, guraso, elkarteek... ildo berean lan egitea da gazteria teknikariak ahalbideratu beharko duena.

C. Gauzatzea

Lehen adierazi bezala parte-hartzearen gaia jorrazteko hiru eremuetan mugituko gara; haur, nerabe eta gazteei zuzendutako zerbitzuetan, udal gazteria politiketan eta gazte elkartegintzan.

a) Haur, nerabe eta gazteei zuzenduriko zerbitzuetan

Haur, nerabe eta gazteei zuzenduriko zerbitzuetan parte hartzea lantzeko faktore ezberdinak kontuan hartu beharko dira:

- Zerbitzuaren hartzaile diren pertsonen adina. Adin tarte bakoitzak dituen ezaugarrietara eta 'hizkuntzara' egokitu beharko gara parte-hartze bideak lantzerako orduan.
- Zerbitzuaren ibilbidea eta izaera: noiztik den abian, nork eta nola kudeatzen den,... Zerbitzuak dituen berezko dinamikak errespetatuko ditugu, eta saiatuko gara hauek hobekuntzak sartzen.

Parte hartze bideak zerbitzuaren kudeaketaren arlo ezberdinetan landu daitezke:

- Zerbitzu horren eskaintzaren antolakuntzan eta planifikazioan (programazioan,...)
- Garapenean (garapenaren ardura delegatuz,...)
- Ebaluaketan (ebaluaketa parte hartzaileak).

b) Haur, nerabe eta gazte politikan

Politiketan parte hartzeko modu formalak eta informalak daude. Horrela informaletan ezagunak zaizkigu herri mugimenduz sortzen diren modu ezberdinetako aldarrikapenak. Modu formalean, administrazioak berak herritarrek parte hartzeko eratzen dituen bideak ditugu; iradokizunak jasotzea, zuzeneko arreta, auzoko kontseiluak...

Haur, nerabe eta gazteek berain hizkuntza propioa dute, eta beraien ezagutza eta arrazoitze maila ezberdinak dira. Adin tarte bakoitzak landu ditzakeen gaiak ezberdinak dira, baita lantzeko moduak ere. Horregatik oso garrantzitsua iruditzen zaigu, udal politiketan parte hartzeko garaian, espazio berezitu bat izatea.

Hauek izan daitezke adibideak praktikan nola gauzatu den ikusteko: behatokiak, kontseiluak foroak, aurrekontu parte-hartzailea, gai konkretu batekin erlazionatutako parte-hartze puntuala...

c) Gazte elkartegintza

Elkartegintza gazteek zuzenean parte hartzen duten espazioa da. Bertan beraien ekimenak taldean garatzen dituzte. Elkartegintzaz hitz egiten dugunean, ez ditugu bakarrik kontuan hartzen izaera juridikoa duten taldeak (elkarte, fundazio...). Forma juridikorik izan gabe, baina formalizazio maila bat duten taldeak ere jasotzen ditugu.

Herri mailan gazte elkarten sorrera bultzatzeko eta dauden kasuan indartzeko teknikariak bideak jarriko ditu. Horretarako modu ezberdinak egon daitezke:

- Diru-laguntzak eskaini eta horretarako irizpideak ezarri edo berrikusi.
- Intereseko gaien inguruko trebakuntza egongo dela ziurtatu.
- Baliabideen transferentzia: lokal eta material utzi, elkarteei zuzeneko arreta, laguntza eta aholkularitza eskaini (horretarako elkartegintzaren inguruko datu eguneratuak izan beharko ditu teknikariak).

Era berean, udala saiatuko da haur, nerabe eta gazteen beharrei erantzuteko jartzen diren zerbitzuetan herri bertako elkarteei parte hartzea. Beti ere elkarte horien ibilbidea eta ekintza eremua, behar hauei erantzuteko modukoa baldin bada.

-
1. CONSEJO JUVENTUD ESPAÑA: *El movimiento asociativo juvenil: escuelas de ciudadanía. La valoración social de los aprendizajes en las organizaciones juveniles*. Pau Vidal (coord.) Ana Villa, María Sureda, Marina Albinyana y Laura Vidal. Observatorio del Tercer Sector. <http://www.tercersector.org.es>. Madrid, 2007.
 2. RICARD ZAPATA-BARRERO. GRITIM. *Políticas de ciudadanía. Discurso público sobre la gestión local de la diversidad*. Diputación de Barcelona. Colección_Estudios. Serie_Igualdad y Ciudadanía, 5. Barcelona, 2009.
 3. B. ROUDET, INJEP. *La participation des jeunes: un enjeu pour les valeurs démocratiques*. Coyote, nº 14. París, 2008.
 4. BENEDICTO J. Y MORÁN M.L. *La construcción de una ciudadanía activa entre los jóvenes*. Instituto de la Juventud, Madrid, 2002.
 5. ALEXANDER, J. C.(1997): *The paradoxes of Civil Society*. International Sociology nº 12(2), pp. 115-133.
 6. BENEDICTO J. Y MORÁN M.L. *Becoming a citizen. Analysing the social representations of citizenship in Spanish youth*. Ponencia presentada en el 5º Congreso de la E.S.A. Helsinki, 2001.
 7. JONES, G. Y WALLACE, C. *Youth, family and citizenship*. Buckingham, Open University Press. 1992.
 8. B. ROUDET, INJEP, *La participation des jeunes: un enjeu pour les valeurs démocratiques*. Coyote, nº 14. París, 2008.
 9. BRÉCHON, P. *Une jeunesse globalement peu contestataire*, from Olivier GALLAND and Bernard ROUDET (dir.), *Les valeurs des jeunes. Tendances en France depuis 20 ans*. L'Harmattan-INJEP, coll. *Débats Jeunesses*. pp. 135-148. París, 2001. BRÉCHON, P. *Génération et politique en Europe occidentale*, from Olivier GALLAND and Bernard ROUDET (dir.), *Les jeunes Européens et leurs valeurs. Europe occidentale, Europe centrale et orientale*. La Découverte- INJEP, coll. « Recherches »: pp. 93-116. París, 2005.
 10. BECQUET, V. and CHANTAL DE LINARES (dir.). *Quand les jeunes s'engagent. Entre expérimentations et constructions identitaires*. L'Harmattan-INJEP, coll. « Débats Jeunesses ». París, 2005.
 11. HART, A. ROGER: *La participación de los niños: De la participación simbólica a la participación auténtica*. Editorial Nueva Gente. Bogota, 1993.
 12. HAUR ETA GAZTERI ZUZENDARITZA NAGUSIA. BULEGO TEKNIKOA. *Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako udal zerbitzuak modu parte-hartzaile batean diseinatzeko gida*. Gipuzkoa, 2010.
 13. LOPEZ DE AROSTEGUI, R. *Promover la participación social y la ciudadanía activa de las y los niños, adolescentes y jóvenes en Gipuzkoa*. Gipuzkoa, 2008.

Proposamenen dokumentua:

irizpideak eta ekintza ildoak

Behin laborategian parte hartu genuenok oinarrizko dokumentua aztertuta eta laborategian aurrez aurreko saioan ideien elkartruke aberasgarriaren ondoren, Gaztematikan herritartasun aktiboa garatzeko hainbat zehaztapen eta ekarpen zerrendatzea lortu genuen.

Irizpideen zerrenda jakin bati buruz hitz egiten dugunean, ez gara derrigorrez aplikatu beharreko oharrez ari. Hausnarketa hauek baliagarriak izatea nahi dugu; alegia, gure zerbitzuetan, programetan eta ekimenetan herritartasun aktiboa sustatzeko lana sendotzen lagun dezatela.

Gera bedi argi, horrenbestez: gure proposamenak eguneroko praxia errazteko eta estimulatzeko ideiak baino ez dira. Oinarrizko dokumentuaren inguruan egindako hausnarketatik abiatu, eta Mesanotxean laborategiak finkatutako praxiari laguntzeko, alegia.

1. Sustapen zerbitzuen eta herritartasun aktiboaren arteko harreman historikoa ezagutzea

Sustapen zerbitzuen eta herritartasun aktiboaren arteko harremanari buruzko lehenengo inpresioak ondorengo puntuetan zehazten dira:

Hezkuntza aisialdiak hasiera-hasieratik izan du zeregin garrantzitsua herritartasun aktiboa izenez ezagutzen dugun hori lortzeko bidean. Bai egitasmo pedagogikoei dagokienez, bai praktika metodologikoan, bai programa edo zerbitzu anitzetan.

Lehen komunitate-garapena, animazio soziokulturala, hezkuntza-aisialdia eta tankera horretako jakintza-adarretan kokatzen ziren beste praktika batzuen kontzeptualizazio modernista da herritartasunerako hezkuntza. Gaur egun bizitza sozialetan eta instituzionalean bizi dugun inplikazio eta parte-hartze krisialdiari buelta emateko sortu dute, erakundeen beharrari eta eskariari erantzunez.

2. Herritartasun aktiboa definitzea eta barneratzea

Gure jarduera-sektorean hautematen da herritartasun kontzeptua ezagutzeko eta gure jarduera-eremura egokitzeko beharra dagoela. Aurreko orrialdeetan adierazitakoa partekatzen dugu, baina hurrengo ideiak azpimarratu nahi dira:

- Gaztematikak gai horri enkoadratze teorikoa eginda heldu behar dio; herritartasun aktiboaren inguruan dugun kontzeptua, helburuak, metodologia, ekintza-ildoak eta jardunbide egokiak jasota.
- Herritartasun aktiboa parte hartzeko prozesua da, hezitzailea; bertan, autonomia pertsonala lortzeko beharrezko kompetentziak lortzen dira, bere inguru hurbilenean gizarte aldaketarako eragile aktibo potentzial izateko kompetentziak, alegia.

- Herritarrak egin egiten direla pentsatzeak lagundu egiten digu Gaztematikan diseinatutako esku-hartze lerroen hezkuntza-nahitasunak aitortzen.
- Lortutako herritartasuna kontzeptua estrapolatuz gero, gure sistemak haurrei, nerabeei eta gazteei lagunduko die erabateko herritartasuna ezagutzen. Partaidetza kolektiboko moduak ezagutzen ere lagun dezakegu (elkarteak, mugimenduak, foroak...).
- Oinarrizko printzipio gisa, gizartean jokatzeko dugun rol aktibo gisa identifikatzen ditugu herritarrak, pertsona bakoitzak norbere herritartasuna eraiki dezan, eta guztion artean herritartasun kolektiboa.
- Dimentsio aktiboa eta espirtu kritikoa gizartea eratzeko edozer prozesutarako ezinbesteko bi elementutzat hartzen ditugu.
- Sistema demokratikoa banakako eta taldeko eskubide zibilen bermea izan behar da.

3. Herritartasun aktiboa sustatzeko helburu zehatzak markatzea

Dokumentu honetan planteatzen diren helburuen zerrenda geure egin dugu, hala ere, ohartarazten da Gaztematikako eragileek helburuok zehaztu behar dituztela sistemak estaltzen dituen eremuetan (udal-zerbitzuak, partaidetzarako tokiko guneak, asoziazionismoa eta gizarte-mugimenduak) eta beste sistemekin lankidetzan aritzen den inguruan.

4. Baloreetan oinarritutako hezkuntza eta parte-hartze soziala herritartasun aktiboa eratzeko lehentasuna duten bi tresna gisa proposatzea

- Parte hartzeko eta erabaki-prozesuak partekatzeko tresna egonkorrak eta egokituak bermatu behar ditu sistema demokratikoak, erakundeen jardunean gero eta interes gutxiagoa duten gazteek esfera horrekiko lotura berreskuratzea nahi badugu.
- Baloreetan oinarritutako hezkuntza gure zeregina estaltzen duen euritako teorikoa izango da jarduera- eta sustapen-eremuetan.

5. Erantzukizun partekatua lortzeko lan egitea, beste sistema batzuekin lankidetzan (hezkuntza formala, zerbitzu sozialak...) herritartasun aktiboaren sustatzeko bidean

Eragile bakoitzak bere jarduera-eremuan eta lurraldean izan dezakeen hezkuntza-erantzukidetasun funtzio hori geure egiten dugu. Herritartasun aktiboa sustatzeko lanean, «hezten duen herria» edo «hezten duen hiria» egitasmoak baliozko erreferentetzat har ditzakegu; egitasmo horietan hezkuntzak sistema formala gainditzen du, eta beste sistema eta eragileekin partekatzen du. Bertan izaten, egiten, elkarbizitzen, lankidetzan aritzen eta abarretan ikasteko guneen beharra planteatzen da, eta haur eta gazteria sustatzeko zerbitzuak herritartasun aktiboko esperientazio-gune bihurtzen dira.

Eskola-esparruan egiten den lana laborategi birtual izateko gune egokia dela dirudi, bizitzako esperientziak eta historiak ezagutzeko edota gaitasun jakin batzuk eztabaidatzeko eta praktikan jartzeko. Nolanahi ere, mugak ditu komunitate-ekintza eta proiektuen zuzeneko parte hartzeari dagokionez.

Gaztematikan, lehendabiziko urrats gisa, hezkuntza araututik herritartasunerako hezkuntzan egiten den lanaren garrantzia lehen eskutik ezagutzea gustatuko litzaiguke, ondoren, une honetan positibotzat ditugun ekintza-lerroak garatzeko:

- Herritartasun aktiboa sustatzeko gure jardunbide batzuetan (hezkuntza-aisia, elkartasunezko mugimenduak...) dagoen erreferentzialitatea sendotzea.
- Haur, nerabe eta gazteentzako zerbitzu balioaniztunak proposatzea, parte hartuz parte hartzeko gune gisa.
- Zerbitzu batzuen garrantzia ezagutzea, hala nola, informazioa, herritartasun aktiboa sustatzeko aholkularitza eta orientazioa.
- Ikaskuntza eta zerbitzua uztartzen dituen metodologiaren balioa barneratzea¹⁴.
- Ikaskuntza eta zerbitzua metodologia errazten duten tokiko sustapen-zerbitzuen arteko lankidetzaren lerroa sortzea ikastetxe formalen eta komunitate-prozesuetan.

14. Centre promotor d'Aprenentatge-Servei a Catalunya: Ikaskuntza eta zerbitzua uztartuz, ondo artikulatutako proiektu bakar batean ikaskuntza eta komunitaterako zerbitzuak konbinatzen dituen hezkuntza-proposamena da, zeinetan parte-hartzaileek prestakuntza jasotzen duten ingurua hobetzeko helburuarekin inguruaren benetako beharretan inplikatzeko direlako.

6. Lau eragin eremu nagusiak zehaztea Gaztematikan

Herritartasun aktiboa eratzeko guneak zehatz ditzakegu: lehenengoa, Gaztematika bera; bigarrena, globala eta kanpokoa: bestelako sistema publikoak eta gizarte-eremuak.

Gaztematikan hiru gune bereizi nahi ditugu: sustapenerako tokiko zerbitzuak, erakundeen partaidetzarako guneak, asoziazionismoa eta gizarte-mugimenduak. Komunitate-esparruan bi gune daude, bestelako sistemak (hezkuntzako, kulturala, soziala...) eta bestelako elkarteak.

7. Tokian tokikoa herritartasun aktiboa sustatzeko gune abantailatsu gisa zehaztea

Tokiko partaidetza komunitate-identifikaziorako eta partekatutako erabakiak hartzeko esperimentaziorako tresna egoki gisa duintzearen aldeko apustua egiten dugu. Herria edo auzoa herritarrentzako lehentasunezko gune gisa begiesten ditugu. Gazte gehienek ustea, gertuen dutena eta beren eguneroko bizimodua lotzen dute beren bizi sozialarekin. Gu ere iritzi horrekin bat gatoz. Hori dela eta, tokiko sustapen-zerbitzuak gune ideal bihurtu daitezke komunitatea eraikitzeko.

8. Familia-nukleoari lehentasuna ematea lankidetzarako subjektu gisa herritartasun aktiboaren sustapenean

Familia-nukleoa da herritartasunaren ernamuina izan daitekeen lehenengo lekua. Partekatzea, errespetatzea, ahalegintzea, eskertzea, laguntzea, solidario izatea, zorientsu izatea eta tankera horretako balioak emango dizkie familiak haurrei, nerabeei eta gazteei. Sozializaziorako bigarren eremua eskola da. Eta, hirugarrenari dagokionez, interesgarria litzateke haur eta gazteriaren sustapen-sistema izatea lortzea. Horregatik, gurasoak eguneroko bizitzarako eta beren semen-alaben etorkizunerako tokiko zerbitzu balioaniztunen balio erantsiarekiko sentikorrak bihurtzen dituzten ekimenak garatu nahi ditugu.

Sustapenerako programetan eta zerbitzuetan taldeko esperientziak bizitzea egokia dela erakustea gurasoei; hala garatuko baitituzte konpetentziak haurrek, nerabeei eta gazteek. Guztia ere norbanakoaren eta talde-autonomia maila jakinak lortzeko, aukera berdintasunean. Horietako zenbait eskumen: arrazoizko kuriositatea, komunikazio enpatikoa, zentzu kritikoa, analisi gaitasuna, zintzotasuna, errespetua, tolerantzia, afektibitatea eta solidaritatea.

9. Herritartasun aktiboa ezartzea haur, nerabe eta gazteen sustapenerako tokiko zerbitzu balioaniztunetan

Gaztematikak, zerbitzu balioaniztunen eta jardueren bidez, bizitza autonomorako eta komunitate-bizitzarako balio duten gaitasunak eta trebetasunak eskuratzeko guneak eskain ditzake. Horrez gain, lurralde bakoitzaren identitatearekiko, bertako baldintzekiko eta gizarte-taldearekiko errespetuari lehentasuna ematen dio. Hori dela eta, ez dugu eredu zehatz baten alde egiten, baizik eta gune bakoitzak partaidetzarako eta herritartasun aktiboa sustatzeko berezko moduak sor ditzan beharrezkoak diren baldintzak sortzea erabaki dugu.

Tresna, teknika eta kultura parte-hartzaileari buruzko prestakuntza praktikoa

Nerabe eta gazteei zuzenduriko prestakuntza-lerroa sortzea, horiei partaidetzarako gune motei buruzko benetako ezagutzak emateko (asanblea, batzordea, foroa, kontseilua...). Beste tresna esperimental batzuen bidez (tailerrak, ikus-entzunezkoak...) edozein gune parte-hartzailetan talde bateko ordezkari, bozeramaile eta abar izateko gaitasunak landuz. Nerabe eta gazteei aholku ematea beste sistema batzuek garatutako prozesuen gainean.

Lanerako metodo eta partaidetzarako gune berriak sortzea

Nerabe edo gazteekin garatzen dugun edozer metodo edo partaidetza-prozesutarako, funtsezkoa izango da haiekin etengabeko komunikazioa izatea tresnen, parte hartzeko moduen eta, batez ere, erabakitze gaitasunari dagokienez dagoen edo ezarritako hitzarmen motaren gainean. Hala ez bada, askotan erraz nahastu egiten dira proposatu eta erabaki artean. Zarauzko Gaztelekuan gertatutakoa dugu adibide bat: gazte bati hiru egunez eskiatzera joatea bururatzen zaio eta Gaztelekuko proposamen-panelean bere ideia idazten du, beste 30 nerabek horren alde egiten dute eta automatikoki uste dute proposamena onartua izango dela. Baina haiek ezin dute irudikatu garrantzitsua dela aurrekontu nahikoa dagoen edo ez baloratzea. Beraz, haiek eman diote panelari erabakitze ahalmena. Hori, ordea, ez zegoen Gaztelekuaren funtzionamenduan ezarrita. Horregatik ondorioztatu dugu komunikaziorako tresnak sortzeko eta nerabe eta gazteen hizkuntza eta kodeetara egokitzeko beharra.

Nahitaezkoa da gure lurraldeko udalerrietako jardunbide egokiak (edo ez hain egokiak) jasotzea, aztertzea, sistematizatzea eta ezagutzea. Batetik, beste udalerrri batzuetan martxan jartzeko erreferentziatzeko esperientzia bihur dadin eta, bestetik, prozesu jakin batzuek izan ditzaketan elementu negatiboak hautematen laguntze aldera, gero horiek arintzeko, ekiditeko edo bideratzeko. Jardunbide horiek guztiak praktika egokien erroldaren bidez heda daitezke.

Parte hartzeko metodologiak aplikatzea diagnosian, programazioan, kudeaketan eta ebaluazioan

Herritartasun aktiboaren sustapenari buruzko esparru teoriko komuna izatea, tokiko zerbitzuetan ekintza-ildo hau garatzeko behar diren oinarri kontzeptualak, beren karakterizazioa eta helburu nagusiak jasotzen dituen. Horrez gain, tokiko zerbitzu balioaniztun bakoitzean aplikatu beharreko moduak, lekuak, eta parte hartzeko zein erabakiak hartzeko metodoak jasotzen dituen dokumentu metodologikoa sortzea, adostea eta idaztea.

Herritartasuna sustatzeko planteatutako helbururen bat lortzea xede duen programa tematikoa urtero erabakitzea eta diseinatzea. Diseinatutako programazioak biltzen dituen datu-basea tresna bat izan daiteke.

Nahiz eta zerbitzuen ekarpena argi aitortu, erantzun beharreko galdera hau da: noiz ziurta dezakegu herritar onak sortzearen helburua lortu dugula? Zer lortzen dugu bidean? Garrantzitsua litzateke herritartasun aktiboaren sustapenak gizartean duen eragina baloratzen lagun diezagukeen adierazle multzoa diseinatzea.

10. Tokiko organo edo gune berriak diseinatzea, haurrek, nerabeek eta gazteek komunitate-bizitzan parte hartzen

Parte hartzeko edozer prozesuri ekin aurretik, beharrezkoa da zer partaidetza mailatan gauden eta erabakiak noren artean hartuko diren zehaztea. Hori betetzeko, partaidetza-kontratuak erabil ditzakegu, hau da, inplikaturako eragileen arteko hitzarmena, beren eskubide eta betebeharrei buruzkoa.

Udal esparruan partaidetzarako dauden guneak formalak edo ez formalak izan daitezke. Formaletan administrazioak zuzenean (batzordea, aurrekontu parte-hartzailea...) edo zeharka (kontseilua, foroa...) hartzen du parte.

11. Elkartze-mundua eta gizarte-mugimenduak herritartasun aktiboaren praktikorako gune gisa aitortzea

Guztiok dakigu gure komunitate gehienetan parte-hartze soziala baxua dela. Bai politikaren eta erakundearen esferan, bai tradiziozko gazte-asoziacionismoan. Hala ere, gero eta handiagoa da antiglobalizazioaren, elkartasunaren, sormenaren, mugikortasunaren, berdintasunaren eta bizi-kalitatearen inguruan elkartzen diren mugimendu, foro, plataforma eta taldeen inplikazioa.

Era berean, erakunde-esferaren identifikaziorik eta zilegitasunik ezaren aurrean, inplikazio oso altua eskatzen da, baita funtzionamendu naturalarekin guztiz bat egiten ez duten erritmoak ere. Askotan konpromiso eta malgutasun gehiago eskatzen zaio (ordutegiak, saio luzeak, informazioaren formatua, ordezkartasuna...) baliabide gutxiago duen eta gutxiagotan libre dagoen alderdiari. Aukera gehiago dituen alderdiari (teknikariak, aholkulariak, politikariak), hau da, soldatapeko langileen alderdiari esfortzu eta egokitzapen gehiago eskatu beharko litzaioke, boluntarioen munduko erritmoak errespetatzeko.

Panorama horren aurrean, zuzena deritzogu asoziazionismoan partaidetzarako formatu eta eredu berriak garatzeko irudimena lantzeari, haur, nerabe eta gazteei egun sortzen zaizkien beharrak kanalizatze aldera.

Gaur egun, elkarten artean bi ibilbide mota aurki ditzakegu herritartasun aktiboaren sustapenari dagokionez. Hezkuntza-aisiarean asoziazionismoak, bere hatsarre, metodologia eta jardunbideekin zuzeneko ekarpena egiten dio herritartasun aktiboari; gazteen elkarteak, herritartasuna sustatzeko helburua ez duten arren, partaidetzarako eta herritartasunerako gune natural bihurtzen dira normalean.

Herritartasunaren sustapena jarrera (balioen) eta gaitasun (trebetasunak, teknikoak...) kontua denez, interesgarria irudituko litzaiguke:

- Konpromisoa publikoki erakustea, gazteen elkarteek herritartasun aktiboaren sustapenaren alde egitea itun, protokolo, kode edota tankerako euskarriren baten bidez.
- Elkartze-mugimenduaren alde egitea, kalitatea hobetzeko konpromisoa har dezan.
- Elkarteko dinamizatzaileak eta hezitzaileak prestatzea, gizarte partaidetzarako gaitasun teknikoak izan ditzaten.
- Elkartze-partaidetzako jatorrizko ekimenak biltzea, sistematizatzea eta hedatzea, gure lurraldean eta beste toki batzuetan.
- Guneak sortzea gazte-partaidetzarako metodologiak eta ekintza-eremuak ikertzeko eta sustatzeko.
- Haur, nerabe eta gazteak gune birtualean parte hartzen dutela ezagutzea eta sustatzea.

Tresnak

gaiari buruz gehiago jakiteko...



La construcción de una ciudadanía activa entre los jóvenes.

BENEDICTO J. Y MORÁN M.L.
Instituto de la Juventud.
Madrid, 2002.




Políticas de ciudadanía. Discurso público sobre la gestión local de la diversidad.

RICARD ZAPATA-BARRERO. GRITIM.
Colección_Estudios. Serie_Igualdad y Ciudadanía, 5.
Diputación de Barcelona.
Barcelona, 2009.




Educación y Ciudadanía.

FUNDACIÓ CATALANA DE L'ESPLAI.
Grupo de trabajo "educación y ciudadanía" del c. asesor.
Documentos para el debate 01.
Fundació Catalana de L'esplai.
El Prat de Llobregat, 2007.



Confancia: Con voz. 6 años de trabajo sobre participación infantil en organizaciones juveniles.

DE MIGUEL MARTÍNEZ, D.BRETONES HERNÁNDEZ, X.
Consejo de la Juventud de España.
Madrid, 2006.



Participando que es gerundio. Pautas educativas para trabajar la participación infantil.

CONSEJO DE LA JUVENTUD DE ESPAÑA.
Madrid, 1999.



Aprender a participar.

CALCERAN PEIRÓ, M.M. (coordinació).
Fundació Jaume Bofill.
Barcelona, 2004.



Promover la participación social y la ciudadanía activa de las y los niños, adolescentes y jóvenes en Gipuzkoa.

LOPEZ DE AROSTEGUI, R
Diputación Foral de Gipuzkoa.
Gipuzkoa, 2008.



El movimiento asociativo juvenil: escuelas de ciudadanía.

PAU VIDAL (COORD.), ANA VILLA, MARIA SUREDA,
MARINA ALBIYANA Y LAURA VIDAL.
Colección cejota-e. Consejo de la Juventud de España.
Observatorio del Tercer Sector.
Madrid, 2006.



Parte Hartze Teknikak.

ETXEBERRIA, A.; JIMENEZ, J.; NEBREDÁ, M.
Aisia liburuxkak. Teknika bilduma 4.
Urtxintxa Eskola.
Gipuzkoa, 2006.



Gazteria Politikak.

EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA.
Ahotik at aldizkaria. 5 zkia.
Martxo 2009.

mesanotxean bilduma

- 01.** Gazteak eta arriskuaren kudeaketa.
- 02.** Emantzipazioa eta norberaren autonomia.
- 03.** Gazte lokalak.
- 04.** Sare birtualak.
- 05.** Gazteentzako balio anitzeko zerbitzuak.
- 06.** Gipuzkoako elkarteek Gaztematikari egindako ekarpena.
- 07.** Haurrak, nerabeak eta gazteak sustatzeko zerbitzuen ebaluaketa.
- 08.** Gipuzkoako gazteria arloko profesionalak.



Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social
Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Infancia y Juventud



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa